

RASFF TXOSTENA

ALERTAK eta JAKINARAZPENAK

ELIKAGAIAK

2013ko HIRUGARREN LAUHILEKOA

Jakinarazpenen kategorizazioa

Jakinarazpenen jatorria


Kutsadura iturrien sailkapena

Kutsatzaile nagusiak eta inplikaturako elikagaiak

Aurreko lauhilekoarekin erkatzea


JAKINARAZPENEN KATEGORIZAZIOA

2013ko hirugarren lauhilekoan animalien elikagaiei buruzko 776 jakinarazpen izan dira. Horietatik 174 alertak izan dira (%22,5), 267 informazio-jakinazpenak (%34) eta 336 mugan egin diren ukapenak (%43,5).



JAKINARAZPENEN JATORRIA

Kutsatutako produktuen jatorrizko herrialdeak hurrengoak izan dira:




Asiari dagokionez, kutsatzaileen % **26,5a Txinakoak** dira eta jarraian **Turkia** dugu: kasuen % **21a. Europari** dagokionez, jakinarazpen gehien sortu duen herrialdea **Espainia** izan da, % **23,5**arekin. **Afrikaren** kasuan, **Marokok**, jakinarazpenen %**26,5** izan ditu. Azkenik, **Amerikaren** kasuan **Brasil**ek da jakinarazpen gehien sortzen duena (% **44,5**).

KUTSADURA ITURRIEN SAILKAPENA

2013ko 3. lauhilekoan zehar, Europako Informazio Azkarraren Sistemak (RASFF) **elikagaien 776 alerta eta jakinarazpen** berri eman du. Jakinarazpen guztietatik, kutsadura iturriei dagozkien zenbatekoak honako hauek dira:

Kutsadura iturriak	%
Kutsadura biologikoa	%29,5
Hondakinak	%20
Mikotoxinak/biotoxinak	%17
Kutsadura kimikoa	%9,5
Iruzurrak	%9
Metal astunak	%6,5
Produktuaren egoera higieniko txarra	%6
Kutsadura fisikoa	%2
OGMak	%0,5



KUTSATZAILE NAGUSIAK ETA INPLIKATUTAKO ELIKAGAIAK

Mikotoxinek eragindako kutsaduren artean, kasu gehienetan, % **69**an, kutsadura **Aflatoxinek** eragindakoa da eta, horrelakoetan **kakahueteak** kutsaduren % **42a** eragin du. Bestalde, kasu gehienetan (% **50**) kakahuetea **Asiatik** zetorren. Bigarren lekuan, **pikuak** (%**21**) eta bere jatorria **Turkia** (**89,5%**).

Kutsadura biologikoei dagokienez, **salmonelek** kutsaduren % **56** eragin ditu. **Salmonella sp** da talde honetako protagonista nagusia kasuen % **83**ean. Ikuluuetako hegaztiak izan dira produktu protagonista %39ko kasuetan, %59,5eko kasuetan Brasil jatorria zelarrik. Beste salmonelei dagokienez, % **9,5a** **Salmonella enteritidis** dagokio (oilaskoak eragin ditu kasuen % 89,5a eta %100eko kasuetan Europa izan da jatorria) eta %**7,5a** **Salmonella typhimuriumi** (txerri haragiak eragin ditu kasuen % 60a, eta % 100ean Europa izan da jatorrizko herrialdea).

Bestalde, **E.coli** dugu bigarren kutsatzaile nagusia: kasuen % **17a**. Inplikaturako produktuei dagokienez: **bibalbioak (txirlak eta muskuiluak)**, % **46^a**, **europako** jatorria zuten (%92,5a).

Hondakinei dagokionez, **pestizidak** %**61a** dira eta medikamentuak %39a. Pestiziden kasuan, **barazkiak** inplikatuak daude kasuen %**54**an eta gehienak (%**46a**) **asiarrak** dira.

Metal astunei buruz esan behar da **merkurioak** eragin dituela jakinarazpen gehien; zehazki, % **65,5**. Ezpata-arraina protagonista izan da %59ko kasuetan eta jatorria Espainia %50ean.

ITURRIA	ZK	AGENTEA	ZK(%)	PRODUKTU FRAGILEA	ZK(%)	JATORRIA	ZK(%)
Mikotoxinak/Biotoxinak	131	Aflatoxinak	90 (69%)	kakahueteak	38 (42 %)	Asia	19 (50%)
Kutsadura biologikoa	230	Salmonella sp.	129 (56%)				
		<i>Salmonella sp.</i>	107 (83%)	hegaztiak	42 (39%)	Brasil	25(59,5%)
		<i>S.enteritidis</i>	12 (9,5%)	oilaskoa	11(91,5%)	Europa	11 (100%)
		<i>S.typhimurium</i>	10 (7,5%)	txerria	6 (60%)	Europa	6 (100%)
		E.coli	39(17%)	bibalbioak	18 (46%)	Europa	16 (89%)
Metal astunak	52	Merkurioa	34 (65,5%)	ezpataarraina	20 (59%)	Espainia	10 (50%)
Hondakinak	153	Pestizidak	93 (61%)	barazkiak	50 (46%)	Asia	23 (46%)
		Botikak	60 (39%)	osagarriak	24 (40%)	AEB	100(42%)

AURREKO LAUHILEKOAREKIN ERKATZEA

- Botika hondakinek eragindako jakinarazpenen kopuruak gora egin du (30etik 60ra).
- Mikotoxinek eragindako kasuen kopuruak behera egin du, %76tik % 69ra.
- Metal astunek eragindako jakinarazpen eta alerten kopuruak ere behera egin du nabarmenki (69tik 52ra).
- Merkurioak jakinarazpen gutxiago eragin ditu, 42tik 34ra.
- *Salmonella typhimurium*-ak eragindako jakinarazpen kopurua nabarmenki egin du gora, 2tik 10era.
- Bibalbioak dira (txirlak eta muskuiluak) *E.coli* jakinarazpenen arduradun nagusiak.